Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urtarrilaren 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Leitza • Bihar hasi eta asteartea arte, herriko inauteriak ospatuko dituzte

Asier Andueza • «Musika eta dantzaren bidez eman diot filmari eman nahi nion kutsua»

Drogarik gabe, pinuen artean

• Uxue Montero

Larraingoa Erroibarren dago, Iruñetik 34 kilometrora. Lau bat etxek osatzen dute Larraingoako zentroa. Inguruan pinuak dira nagusi. Larraingoa drogarik gabeko gunea izatea nahi dute. Drogekin menpekotasun arazoa eta euren buruen kontrol eskasa dutenek Larraingoan ez dute kontsumitzen, drogarik ez dagoelako. Eta hortik abiatuta, urtebetez, gogoeta egiten laguntzen diete, euren egoera zein den eta zer nahi duten jakin dezaten. Larraingoako zentro terapeutikoa duela 18 urte sortu zuten, eta bertatik 430 bat drogazale pasa dira.

Leitza •

Inauteriak ate joka

Afari, dantzaldi eta mozorroek osatuko dute datozen egunotako besta

Hementxe daude Ihauteriak. Uitzikoak izan ziren aurrenekoak, gero Eratsungoak etorri ziren, eta asteburu honetan Leitzakoak izanen dira. Bihartik asteartea arte makina bat ekitaldi dago leitzarren gozamenerako.

Asteartean, Leitzako haurrak kaleetan barna abiatuko dira taldeka mozorroturik. • ELI BELAUNTZARAN

OFIZIALKI IGANDEAN HASTEN diren arren, bihar, Leitzako pilota eskolakoek antolatuta, Leitzako eta Goizuetako umeen arteko partiduak jokatuko dira pilotalekuan, eta herrian barna ere ibiliko dira eskean. Gainera, lehengo urteetan bezala, Irauli Gazte Asanbladak prest du larunbat gaueko afaria, eskolako jantokian. Iaz hirurehun bat lagun elkartu ziren, eta giro oneko eta kolorez betetako afaria izan zen, afaldar guztiak atxoatuta joan zirelako. Mozorrotuta joatea derrigorrezkoa da, eta ordaindu ere egin behar da.

Beraz, bihar hasiko da martxa Leitzako karriketan, jendea zain dagoelako eta kanpotar asko etorriko delako. Igandea egun berezia izan da azken urteetan, mozorroen kalejira egin baita egun horretan. Aurten hirugarren aldiz izanen da mozorroen kalejira. Igandean herriko kaleak nahiko hutsik egoten zirela ikusita, talde guztiak elkartu egin ziren horretarako, igandeko garai bateko garrantzia berreskuratu nahian. Orain dela bi urte, larruak eta etxeko arropa zahar guztiak erabili zituzten aurreneko urratsa egiteko. Baina iaz jendea animatu egin zen, eta koadrilak orga ateratzera ere ausartu ziren. Aurten hamabi eta erdiak aldera hasiko da jendea gora eta behera bere jantziak erakusten. Beste batzuek jantzi dotore horiek ikusiz gozatuko dute. Gero, denak Aurrera Kultur Elkarteak eskolan antolatzen duen bazkarian parte hartuko dute. Arratsaldeko bostetatik zazpietara, Udalak antolatuta, tren txiki bat ibiliko da herriko kaleetan barna, eta azken geltokira iristen denean, plazako karrapera, Amaia eta Kristina prest egonen dira bere doinuekin jendea dantzan jartzeko. 21:30ak arte ariko dira, gero 23:30etan bueltatzeko. Tarte horretan Incansables txarangak joko du, plazan lehenbizi eta herrian barna gero.

Astelehena baserrietatik eskean ibiltzeko eguna da. Gorriztaran, Erreka eta Sakulu auzoetako baserritarrei bisita eginen diete goizeko bederatzietan Aurrerako atarian elkartuko direnak. Errekara txistulariak joanen dira ibilaldia alaitzen eta beste bi auzoetan txaranga arduratuko da betebehar horretaz. Berandu izaten da gazteak baserrietatik etortzen direnerako, baina herrian besta ez da etengo eta 16:00etatik 18:00etara, euskal jolas eta herri kiroletan hartuko dute parte herriko gaztetxoenek. Ordubete geroago, Hernaniko Bigira taldea afaltzeko ordua arte ariko da jo eta su jendea dantzarazten.

Asteartea izanen da parrandarako azken eguna. Arratsaldean herriko haurrak taldeka mozorrotuta aterako dira, eta gauean Xuhat taldeak kontzertua eskainiko du.

→ Eli Belauntzaran

Makea •

Bertsolari gazteen topaketa

Bihar, larunbatarekin, Iparraldeko Bertsolari Gazteen I. Topaketaren karietara, bertso bazkaria izanen da Lapurdiko Makea herrian Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xumai Murua, Eneritz Zabaleta, Miren Artetxe eta Kanbo, Ziburu, Hendaia eta Baionako bertso eskoletako berrogei bat haurrekin.

Lau herri horietako bertso eskoletako haur eta gazteak Makean elkarreratuko dira bihar eta etzi. Denetarik izanen da: bertso saioak, bertsolaritzari buruzko solasaldiak, jolasak, kirola... Bertsotan, solasean eta jostetan arituz, elkar ezagutzeko parada profitatuko dute haurrek.

Iparraldean urte anitz pasatu dira bertso saioetan bertsolari gazterik entzun eta ikusi gabe. Alabaina, egoera iraultzen hasia da. Bertsularien Lagunak Elkarteak eta Bertsozaleen Elkarteak makina bat jarduera egiten ari dira bertsoaren inguruan: Gure Irratiko *BertsoZirika* saioa, Iparraldeko Eskolarteko Txapelketa eta Bertsolari Gazteen Topaketa hau, bertze gauza anitzen artean. Lapurdin bertsozale belaunaldi berri bat sortzen ari da, eta hortik aterako dira bertsolari, bertsozale, gaijartzaile, epaile eta saio antolatzaile berriak. Horiei guziei indarraren emateko eta talde izpirituaren lantzeko balioko du Makeako topaketa historikoak.

→ Daniel Urrutia

ziutatea

ARITZ AGIRRE

San Inazio (1491-1556)

Batetik-bestera hutsean jardun diren ehiztariek San Inazio etorbidean dute asegunea, ostalariek ateak itxi, argiak piztu eta eguna argitzen dutenean. Labriteko aldapa goitik behera edan ondoren bada Donibanerako zeharkako bideari huts egin eta aitzin segitzen duen argi-galdu bakanik; San Inazioraino. Non eta San Inaziorenean, Jesusen konpainiaren sortzaile izan zenaren oroimenezko etorbidean. Bertan merkaturatzen dute egun batuzek amodioa, Carlos III zinemarenalboan zein San Inazio eleizako aterpean izkutatuz hanka biluzi lizunak. Hain justu, Loiolako San Inaziok Gaztelaren zerbitzura hankak zauritu zituen leku berean.

Gorputz luze estilizatuak dakuskigu salgai, zorrozki erantsitako arropa urriekin pasareletako birtuteak irudikatu nahain. Emakumez jantziriko gizonak edo kromosomek giltzapetutako emakumeak; ar edo eme galduak. Nork jakin. Amsterdameko auzo gorria kausitzeko ez da horren urrun joan beharrik.

Inaziok burua altxatuko balu! Bakarka izaten dira estrategikoki kokatuta eta Jesuitaren oroimenezko karrikan ongi zehazten du bakoitzak bere lan-eremua, espaloiaren aldamenean beti, mugitzen den orori begira maitasuna noiz fakturatu zain.

Baina paisaiaren ohiko osagaia bilakatu dira denboraren poderioz. Gaueko bitxikeri edo adierazle dira, etorbidearen izena bezain garrantzitsu. San Inazio baino desiratuago beharbada, edo emankorrago agian, eskariaren araberakoa baita eskaintza. Eta haiek beti esperoan, inoren zain. Autoz heltzen zaizkie bezeroak, eta autoz ere gaueroko irainak, atzokoan bezala. Hankak depilatzeko aholkatu zioten irrika San Inazioko langileari. Autoaren zalaparta bortitzaren ostean nagusitu zen bakardadearen isiltasuna. Bakarrik ziren San Inaziori atxikitutako gorputz-saltzaileak, gaueko gidari harroputz koldarrak bezain bakarrik. Guziak isolatuta. San Inazio estatuaren buruan ukabila eroso paratuta. Zain.

Lizarra •

Nicanor Piñole

Gustavo de Maeztu museoan margolari horren lanak ikus daitezke

Erakusketa berezia, antologia apartekoa da egunotan Gustavo de Maeztu museoan ikus daitekeena. Orotara Nicanor Piñole artista asturiarraren 18 olio eskegi dituzte pinakotekako hormetan.

Nicanor Piñoleren 18 olio samur eta idiliko ikus daitezke Gustavo de Maeztun.
• KRISTINA BERASAIN

GIZON SENTIBERA, SOTILA; bere artelana bere izaeraren ispilu gardena da. Horregatik, bere artelana urguria da, intimoa, ezkutua, samurtasun hunkigarriz laztandua, idilikoa. Eta koloreaz duen zentzua, bikaina, agerikо dotorezia isila. Hauek grisak Piñole margolariarenak...!». Horrelaxe idatzi zuen Gerardo Diego poetak adiskide min izan zuen Nicanor Piñole margolariaz. Orain, poetak idatzitakoa eta artistak margotutakoa irakur eta ikus daiteke, hitzak eta artelanak bat eginda.

Truke artistikoa: Nicanor Piñole margolariaren lanak Gustavo de Maeztu museoan. Horixe da erakusketaren izena, eta urtero Maeztu artistaren garaiko margolariak ekartzearen dinamikaren barruan da erakustaldia. Orain arte Fernando Amarica, Uranga, Zuloaga, Solana, Carlos Saenz de Tejada eta Ricardo Baroja margolarien artelanak eskegi dira museoan bertzeak bertze.

Nicanor Piñole XIX. mende bukaeran jaio zen, Asturiasen. Txiki-txikitandik ekin zion margotzeari, eta Madrilen ikasi zuen, San Fernando Arte Ederretako Eskolan. Han garai hartan indarrean zeuden teknika klasikoak ikasi zituen, eta behin horiek menperatuta, bere bide pertsonalari ekin zion. Bere margoa pertsonala da oso, barrukoa, intimoa; inpresionismo sentimentala oroitarazten du. Ehun urte bizi izan zituen Nicanor Piñolek, tartean asko ibili zen Europan zehar, baina beti itzultzen zen Asturiasera. Erroma eta Pariserat joan zen eta, orduan boladan zeuden margolarien eragina izan zuen: Monet, Pissarro, Sisley eta Whistlerrena, esaterako.

Halaber, Velazquez maisuaren eragina nabaria da haren lanetan. Paisaiak, pertsonaiak, eguneroko bizimoduko eszenak, hurbil sentitzen zituen jendearen erretratuak, autoerretratuak... margotu zituen. Esaterako, 90 bat autoerretratu pintatu zituen, bere burua ikertzeko zuen interesaren adierazle. Nicano Piñolek kezka handia zuen sintesiaren inguruan; hala, kolorea, espazioa eta denbora laburbiltzen saiatu zen, baita lortu ere. Finean, lanaren bidez bere bizitza partekatzeko gonbidapena egiten digu.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Xorroxin irratia lagundu

Hemezortzi urte darama **Xorroxin Irratia**k uhinetan bere mezua hedatzen. Orain, lehen aldiz, entzuleei laguntza eskatu die, aurrera jarraitu ahal izateko. Gai horri eskaini dio **Ttipi-ttapa**-ko azken zenbakiak bere erreportaia: «Hemezortzi urte egin ditu berriki Xorroxinek. Hemezortzi urte bazter hauetako berriak ematen, herritarren komunikazio tresna izaten. Denbora horretan batek daki zenbat solas, zenbat kantu aireratu ote diren **Xorroxin** irratitik!».

«Dena den, bide luze hau egiteko hainbat traba izan dituzte bidean, ekonomikoak batez ere. **Xorroxin** sortu zelarik, Erratzun jarri zuten lehendabiziko estudioa. Beharrezko tresneria erosteko, lagunen artean borzna mila pezeta bildu zuten, eta ahal zen moduan emititzen hasi ziren. Horiek izan ziren **Xorroxin** *irrati pirataren* lehen pausoak. Geroago, Elizondon izan ziren bolada batez, eta, etxe gehienetara zabaltzeko, Amezti eta Legate mendietan antenak paratu zituzten bidenabar. Hala, Baztango mugak gainditu eta Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietara hedatzea lortu zuten».

«Hemezortzi urterekin heldutasuna lortuta, inoiz baino gogo handiagoz begiratzen du **Xorroxin**ek aitzinera, eta bere buruari helburu berriak jarri dizkio. Horien artean garrantzitsuena, beharbada, Lesakan estudio berria jartzea da. Hurbilagora begira, bertze asmo batzuek dute lehentasuna, hala nola mendiko hedagailuentzat eta estudioko aparailuentzat ordezkoak erostea. Horretarako, entzuleen artean dirua biltzen ari dira abenduaz geroztik, diru-laguntza ofizialek eta publizitateak ez dutelako nahiko sos ematen. Bi modu daude **Xorroxin** laguntzeko. Batetik, 1.000 edo 5.000 pezetako laguntza bonuak erosiz, eta bertzetik, irratiko kide edo babesle bihurtuz».

urdai aren mintzoa

Xabier Larraburu

Fikzioaren estrategia

Esango banizue, adiskideok, nire etxeko leihotik aldameneko etxean pianoa jotzen ari den emakume bat ikusi eta entzuten ahal dudala, hiru metro eskaxetara dagoela eta partiturak (eta guzti!) ere irakurtzen ahal ditudala, segurasko gezurra dela esango zenidakete, ez dela posible, irudimen handiko gizona naizela eta abar. Horretan dago gakoa: Pianistak zuen erantzunak igarri ditzakeela!, eta horregatik goizez zein gauez pianoa jotzen aritzen da, lasai asko, fikziozko irudi batekin antz izugarria baitu eta munduan bere pertsonaia sinestuko duen gizakirik ez dagoela jabeturik, berari bost mundua, berari bost auzokideak, berari bost pianoa eta soinua ez den guztia.

Ez da, ordea, fikzioaren estrategiaz baliaturik bereak eta bost egiten dituen pertsonaia bakarra. Jarautako Elefante Arrosa, esate baterako. Jarautako Elefante Arrosak ez du poterik ordaintzen. Ezta bat ere! Zer esango diete, bada, tabernetako zerbitzariek munipei? Elefante Arrosak ordaindu gabe alde egin duela? Nork aitortuko du, eskua epaitegiko bibliaren gainean jarrita, berak ere Elefante Arrosa tabernatik zealdoka eta doako mozkorrarekin ateratzen ikusi duela? Nik ez. Paso.

Badira fikziozko estrategia darabiltzaten beste batzuk. Miguel Sanz, adibidez. Nola ulertu bestela tipo horren, barkatu, pertsona horren ibilbide eta jokabidea? Klaro baietz! Klaro baietz! Fikzioaren estrategiaz baliatzen den benebenetako pertsona bat da! Zuek esango didazue horrelako politikari bat egotea ezinezkoa dela, nire irudimenaren sormen bat izan behar duela eta abar eta abar. Eta bitartean Nafarroako Tronuaren egoitzan Miguel Sanzek irri egiten du. Eta poterik ordaindu gabe badoa. Zealdoka. Eta dena dohainik ateratzen zaio. Eta denek kokildurik gaude bera gure aurretik pasatzen ikusten dugunean, eta ez ikusiarena egiten dugu eta elkarri begiratuz gero lotsatzen gara. Enfin. Zertan ari naiz? Sinesgogorrak zarete, oso. Eta bitartean piano joleak aurrera egiten du bere partitura amaigabean, eta ni nazkatuta nago, hemen, leihoan, eskuak patriketan eta suduraren punta kristalean, fikziozko pertsonaia madarikatua buelta eman eta, bat-batean, irribarre bat eskaintzen didaneean. ●

Larraingoan drogarik abe

Larraingoa zentro terapek 18 urte daramatza toxikomanountzen

Hiritik mendira pasatu dira, droga har horren beharrik ez izatera. Justiziatik heldu dira batzuk. Hondoa jo dutelako b Drogen menpekotasunari behin betikoz egin nahi dietelako beste bakan batz Larraingoan, abstinentzia abiapuntu ha drogen menpean daudenak laguntzen d gogoeta egiten, zein den euren egoera nahi duten azter dezaten.



Carlos, 35 urteko drogazalea, Larraingoan kontent dago. Gimnasioan eta animaliekin gustura moldatzen da, ohikeriari aurre egiteko.
●
UXUE MONTERO

LARRAINGOA ERROIBARREN DAGO, IRUÑETIK 34 kilometrotara. Lau bat etxek osatzen dute Larraingoako zentroa. Inguruan pinuak dira nagusi. «Larraingoa bizitegi-zentroa da, eta drogarik gabeko gunea izan nahi du», azaldu du zentroko zuzendari Asun Ibañez medikuak. «Menpekotasun arazoa eta beren buruen kontrol eskasa dutenek hemen ez dute drogarik hartzen, ez baitago».

Larraingoa ANTOX elkarteak sortu zuen, 1982an. Toxikomanien ikerketa, prebentzio eta errehabilitaziorako elkartea da ANTOX. Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena du, eta horri esker Larraingoako 25 plazak kontzertaturik daude. Erabiltzaileek, gaixoek, 22.800 pezeta (900 libera) ordaindu behar dituzte hilero. Larraingoa sortu eta hamar bat hilabetetara sartu zen Ibañez. Ordutik 430 bat pertsona pasatu dira bertatik. «Gure helburu orokorra da, abstinentziaren bidez, pertsona horren egoera hobetzea bere esparru sozialean», dio Ibañezek. «Baina Larraingoan egotea behin-behineko kontua da, prozesu luze baten zati bat».

Larraingoan hezitzaile, gizarte langile, mediku, psikologo eta praktiketako ikasleen artean, denetara, 18 bat lagun daude. Zentroak 25 bat gaixorentzako lekua du, baina plaza guziak ez dira betetzen. «Gorabehera anitz dago pertsona hauen artean», esplikatu du Ibañezek. Exijentzia handiko tratamendua da, eta denek ez dute bukatzen. Dena dela, guti dira deus erran gabe alde egiten dutenak. Larraingoatik ateratzen dira programa bete edo helburuak lortu dituztelako, pazienteak hala uste duelako, segitu nahi ez eta uzten duelako, kanporatzen dutelako edota beste zentroren batera bidaltzen dutelako. Inor ez da hil Larraingoan.

Politoxikomanoak dira Larraingoan daudenak. Batez ere, heroina, kokaina edota alkohola hartzen zuten. Batzuk metadona utzi nahi dute.

Luis, diseinuzko drogen kumea

Luis 12 urtekin hasi zen alkoholarekin. Orain 24 ditu. Gero desidrina eta zentralina, anfetamina, speed, extasia eta kokaina etorri ziren. «Diseinuzko drogen kumea izan naiz Iruñean», erran du Luisek. Egunero kontsumitzera heldu zenez, trafikatzen hasi zen 20 urte zituenean. Duela hamar hilabete Polizia Nazionalak harrapatu zuen. Bi hilabetez izan zen kartzelan. «Hartu nuen kaskarrekoa ikusita, mundu horretatik atera behar nuela ulertu nuen. Informazioa bilatu, eta honera etorri nintzen fiantzapeko askatasuna lortu eta gero». Larraingoan maiatzaren 26an sartu zen. Epaiketa hilabete barru du eta lau hilabete falta zaizkio zentroko programa bukatzeko.

«Gogorra izan zen honera etorri nintzenean. Kartzelan erran zidaten hau kartzelaren antzekoa zela, baina barrak izan ordez pinuak zituela. Hori gehiegikeria da. Ongi dago hau. Hemengo profesionalek hagitz laguntzen dute».

Orain ongi dagoela dio Luisek. «Hiru egunetako ateraldiak egiten ari naiz. Hamabi egun barruan pasatu eta hiru egun libre.

Luis, 2
«Gogorr hona nintz Kartzel zidat kartzelara zela bai izan ord zituela. Hi erratea dago hau profesione laguntz

Familia, neska eta lagunen artean banatzen dut denbora. Dena den, droga gogorrak hartzen dituzten lagunekin moztu behar da. Porroak soilik hartzen dituztenekin elkartzen naiz. Baina nik ez dut berriz porrorik hartuko. Joan den larunbatean urtebetze ospakizun batean izan nintzen, ikusi nituen lagun zahar horiek eta droga gogorragoak eskaini zizkidaten. Baina egoera horretan indartsua izan behar duzu eta ezetz erran».

Epaiketarako hogei egun gelditzen zaizkio, eta Luis baikorra da oso. «Psikologikoki asko laguntzen zaituzte hemen. Hamabost egunean behin hitzaldiak ematen dizkigute, eta autolaguntza taldeak daude. Kontua da zure burua irekitzea eta besteen laguntza jasotzea».

Larraingoan dauden askok arazo judizialak dituzte. Kartzelatik asko joaten dira. «Han barnean droga anitz dago, eta ez da inor bergizarteratzen», dio Luisek. «Hemen, hein batean, delituaren zigorra bete dezakezu, bergizarteratzen zara eta aurrekoaz paso egiten duzu».

Carlos: «Pixka bat utziko dut»

Carlos 15 urtekin hasi zen porroekin. Orain 35 ditu. Gero anfetaminak, tripiak, pilulak, kokaina eta heroina etorri ziren. «Denak probatzeko asmoa nuen», dio Carlosek. «Kokainak eskatzen duen bizitza mailari eustekо trafikatzen hasi behar izan nuen. Egunero 35-40 gramo hartzen nituen, eta hori dirutza handia da, ia 300.000 pezeta egunero. Eta horretarako saldu egin behar duzu. Ez duzu eguna bizitzen, gaua baizik. Ez da bizitza maila txarra. Zure gorputza hondatzen duzu, baina ongi pasatzen duzu».

Carlos *garbi* zegoen, 1998an zenbait *arazo* izan zituen arte. Iaz lauzpabost epaiketa egin behar zizkioten eta aholkatu zioten epaiketak Larraingoan zegoela igarotzea. Kartzelan egonez gero bi bat urte itxaron behar da Larraingoan sartzeko. Carlos baldintzapeko askatasunean dago eta duela hiru hilabete sartu zen Larraingoan: «Nahi izanez gero, orain kalean nengoke, baina hemen nagoela, programa bukatu eta pixka bat kenduko dut menpekotasun hori».

Egunean jarduera anitz dute egiteko Larraingoan. Gogoa entretenitzea da kontua. Dena den, ohikeria da nagusi anitzetan. Baina Carlosi kontent ikusten zaio. Gimnasioan denbora asko ematen du eta txerri, untxi eta ahateerekin egotea ere gustatzen zaio. Harro erakusten du Luisek egin duen egurrezko zintzilikaria.

Programa bukatzea espero du Carlosek, baina ez daki zer gertatuko den gelditzen zaizkion bi epaiketekin. «Drogak ez dira txarrak, gehiegi hartzen ez bada. Ez dut uste utziko ditudanik. Etengabe kontsumitzeari utziko diot, baina noizean behin hartuko ditut. Asteburuan mozkortzea eta lerro pare bat hartzea ez da txarra. Ziur naiz eginen dudala. Nik eta hemen daudenen gehienek. Guti dira honera etorri eta drogak utzeko asmo irmoa dutenak. Luis gutienetakoa da». Hain zuzen ere, Luisen asmoa irmoagoa delako, mundu horretatik atera nahi duelako, izen faltsua eman digu eta ez du argazkia egiterik nahi. Carlosek bai. Gustura, gainera.

→ Asier Azpilikueta



Larraingoa zentro terapeutikoak 430 bat lagun hartu ditu 18 urtetan.
●
UXUE MONTERO

●●●

Arau zorrotzen beharra

LARRAINGOAN BETE BEHARREKO ARAU ZORROTZAK DITUZTE. KONPARAZIO BATERA, EZIN DA HARTU EZ DROGARIK, EZ ALKOHOLIK, EZ kaferik, ez tratamenduz kanpoko botikarik. Eta tabakoa mugaturik dago. Gernu analisiak eta mineraketak jasatera beharturik daude. Dirurik ezin da erabili. Bortizkeria, armak eta bertakoen arteko harreman sexualak debekaturik daude. Jasotzen diren eskutitzak zentroko langile baten aurrean ireki behar da. Higiene pertsonal zorrotza izan behar da. Arau horiek, eta beste batzuk, ez betetzeak eskubideen behin-behineko galtzea, programaren faseetan atzera egitea edo kanporatzea ekar dezake.

Zentroko zuzendari Asun Ibañezendako arauak ez dira gogorregiak. «Arauak harremanak arautzeko dira», adierazi du. «Hemen, arauen bitartez, saiatzen gara muga jakin batzuk ezartzen, gero errazago gizarteratu daitezen».

Larraingoan daudenek, izan duten bizitza motarengatik, halako borroka bat dute arauarekin. «Orokorrean onartzen dituzte, baina batzuetan sortzen dira bortizkeri egoerak, ez arauak ez errespetatzeagatik, pertsonen arteko harremanetan dauden tirabirengatik baizik», adierazi du Ibañezek. «Ez dakite mugekin jokatzen, ez direlako gai gatazka bat modu egokian konpontzeko. Adibidez, hemen arauetan azaltzen da beste norbaitena den zerbait ezin dela hartu, alegia, ezin dela lapurtu. Hori edonork badaki. Gizartean gehienok ulertzen dugu hau nirea bada ezin diezadakezula ken, nahiz eta droga erosteko behar duzun. Ezin da bestearen tabakoa edo xanpua hartu, eskatu egin behar da. Eta lapurretarik gerta ez dadin, tentazioa saihesteko, beste arau bat jarri behar da: erabiltzaile bat ezin da sartu beste baten logelan. Arau horrek segurtasuna ematen digu denoi. Alde horretatik, araua istiluak eragozten duen erreferentzia da».

Luis erabiltzaileari gogorra egin zitzaion hasieran arauen kontua. «Toxikomanoek dugun arazoa da guretako ez dela inoiz izan ez araurik ez legerik», erran du. «Gauza guziez paso egiten dugu, eta arauei egokitzea asko kostatzen zaigu. Dena dela, hona etorri nintzenean, nik ideiak garbi nituen, mundu honetatik atera nahi nuen, eta banekien horrek esfortzua eskatuko zidala».

Carlosi kartzela ttiki bat iruditu zitzaion Larraingoako zentroa. «Arau asko dago, baina horrela izan behar du», gaineratu du, hala ere. «Kalean nahi duzuna egiten duzu, eta hemen diziplina ezartzen dizute, ordutegi bat. Noski, ez zaizu gustatzen, baina konturatzen zara ona dela. Hortaz, niri ez zitzaidan asko kostatu arauak onartzea,

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Baztango euskal idazleen berri laburra (I)

Nafarroako udalerri euskaldun handiena izanik ere, gutxisko dira Baztanek euskal literaturari eman dizkion izenak; alabaina, eman dizkion gutxi horiek nahikoa oharkabean igaro zaizkigu gehienetan, eta Izeta oparo zein Salaburu euskaltzain ezagunez aparte, inor gutxi oroitzen da beste egile zenbaitez, tartean gora handikoak ere izan bazirelarik.

Mikel Olanok Leitza-Aresoko mintzoa dela eta Nafarroako euskarak Baztangoa baino beste zenbait gehiago badirela bazioskun behiala, eta ezin ukatuzko egia bada ere, zeinek ukatu egin lezake Baztan *ballea* nafarron berebiziko barruti izpirituala denik? Arrazoi ugari tarteko, oraingoan zerrendatzea arront gauza undatsa litzatekeena, ez da dudarik Baztanek euskal senaren babestoki hauta bilakatu zaigula aspaldidanik, *euzko gogoa* sutsu eta temati atxikitzen digun Unibertsitate zaharra. Alta, hau guztiarengatik ere, bada beste Baztan bat, oraintxe esan dudanaren kirbina, ez berria ere, *Diario de Navarra*-ren orrialdeetatik eta egunero erakusten zaiguna, Aizpunen eta pausaleku zein hilobi, *navarrismo* erratuaren toki hauta eta sakratua, non euskarak balio erromantikoa baizik ez duen, non muga honezkero aberasbidea ez den arren berean tinko dirau sekularenean baino mugago, non Kronos logale batek Tubalekin diharduka kartetan ardandegiko atarian xirimiri geldoak oro malenkoniatsu goibeltzen dueno.

Hau guztiarengatik agian, Nafarroako udalerri euskaldunik handiena denak, zabaleran bederik ere, beharko lukeen baino ekarpen txikerragoa egin digu euskal letretan, agidanez, eta gune izpiritual batena betetzen duen neurrian, paperean hitza materialki finkatzeari aiher izan zaio neurri haundi batean. Halaz guztiz, ez da dena ermua izan, elkor eta deskoster, eta daukagun ekarria bereziki haundiegia ez bada ere, komunzki dugun zein diguten ezezagutza da gure jarauntsi txikia tamalgarriki oraino are txikiagotzen duena. Honen artezteko, bihoaz harroki gure entziklopedietan ere sarbide beharko luketen Baztango zenbait euskal idazleren izenak, ahantzitako izen gehiagoren aterarazteko xedera biskaturako ere balio dezaketenak, edo beste ezeren ezean, karrika berrien bataiatzeko artamendagarri dituzkegunak.

Nikolas Etxeberria Iturralde
(1796-1845, *Berroeta*)

Juan Nikolas Anbrosio ponte izen luzea abenduaren seian Iruñean ezarri bazioten ere, orduko egoera historiko bereziak bultzaturik izan zen, bada gainontzeko sei ánai-arrebak Berroetan jaio baitziren, eta hartan jaioko zen gure Nikolas konbentzio gerratearenak tartean ez izatekotan. Hori izan zen arrazoia, bada, bere gurasoek Berroetako eliz parrokiako bataio liburuan semearen izena ezar zezala erretoreari eskatzeko, eta horrela agertzen zaigu 1796.eko jaiotakoekin batera. Seguruenik ere, Iruñera itzuliko zen eliz ikasketak burutzera, zenbait urte lehentxeago Irigoien Dutari Iruñeko apezpiku arizkundarrak irekiriko San Migelgo apezgaitegira hain zuzen ere, eta behin apeztuz gero, Berroetara arraitzuli zen urte bat lehentxeago zendu Juan Pedro Goienetxe erretorearen postua betetzera bere auzakideek hala eskaturik. Basaburuko hirian zortzi bat urte eman ostean, Elizondora joan zitzaigun 1828.eko maiatzean Santiagoko erretore, non 1845.eko maiatzaren 13an zendu arte izan zen. Hil baino bost hilabete lehentxeago Iruñeko San Zerningo erretore aukeratua izan zen -ez ahantz Burgoko eliz parrokia honetan apez euskaldunik usu ohi zela-, baina argi denez, bizitzaren azken postu honetakoak ezin izan zituen bete ordurako arras eri baitzen.

Zabalkunde ikaragarriko katetxima baten egilea izan zen Nikolas Etxeberria. *Christau doctrina Aita Gaspar Astetec erderaz escribitua eta orai escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Valleco Parroco batec cristau fielen instruccionearen deseyuz*, Iruñeko Gadearen baitan estreinakoz 1826.ean ageri zena. Fernando Pérez Ollok 1990.eko *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian egile eta itzulpen hauei buruz argitaratu zuen artikulu jakingarri baina labur batean beste lau edizioen berri eman zigun, alabaina, eta Pérez Goienari jarraikiz, gutxienez beste zazpiren berri eman badaiteke, guztiak Iruñean agertaraziak, 1852 eta 1895 urte bitartean -hauen artean aipagarria da 1889.ekoa, geroago aipatuko dugun Anastasio Etxeberrik eskatuta atera baitzen-. Itzulpen trinkoa dugu honakoa, katetximen ohiko usarioaren arabera, 93 orrialdeko liburua, 8ren tamainakoa, orduan probisorea eta bikario nagusia zen Joakin Jabier Uriz Lasagak 1826.eko otsailaren 4an sinatu baimena eta Jose Jesus eta Mariarena trinitario oinutsaren onespenarekin agertu zena. Alabaina, eta aipatu dugun itzulpenaren merituа ukatu gabe, interesgarriagoak direteke Nafarroako Artxibategian dagoen Bonaparte fondoak dituen Nikolas Etxeberriaren hiru sermoi, beste arrazoiren artean, itzulpenak ez direlako, eta idazle berroetar honen dohainak agerikiago erakusten baitizkigute. Hiru sermoiak Elizondon bertan predikatutakoak dira; lehenbiziko biak, San Antonioren egunerako sermoiak dira, 1829.ean eta 1840.ean ogutziak, eta hirugarrena, berriz, San Joseren egunerako, 1841.ean erabilia izan zelarik: «Vicitzea munduan ezda dicha, ez da fortuna, ezbada ongui vicitzen. Entenditzen duzue ongui gucioc, vicitzea munduan ezdela dicha, ezdela fortuna ezbada ongui vicitzen? Guizon aberatsac egiten detzaque gustoac, badu bearduen gucia bere bicia pasatzeco, ezditu esperimentatzen pobrezac berequin dacartzan necesidadeac eta egun tristeac. Zorionecoa deituco dugu orrengatic?».

etorri ahalean

Patziku Perurena

Ez diren gauzen ondasuna

Harri hau, uharri hau, ikusten duk? Halakoa huen gure etxea. Ha- rriak ederragoak al dira ba harresian? Ez dezadan gehiago entzun, begiratu, ez pentsatu, bizitza hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez eta, sentitu ere ez, harriak legez izan nahi diat, mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua, lekua besterik ez, hurrin deritzan herrian.

Inork ere ez dik oroimenaren korapiloa deslotzen (dena ohitura, dena errua, dena barkamena)... Gure baitan habia egiten duen harridura hauxe duk iraun behar lukeen guzia, eta hau guzi hau, galduko dena. Hau hire ondasun guzia. Bakardade eta isiltasun hau hire jabeko bakarra. Mila jostorratz herdoildu aldean, leihorik gabeko begirada, zafrada garratz bat bihotzean. Amagandik irten hintzen bezala irtengo haiz endregu honetatik...

Funtzionarioak zelatan dizkiagu beti (eta ez kartzelakoak bakarrik). Euskara duk gure territorio libre bakarra, eta gutako batek oharkabean bezala esan dik: *emukatup tab kogaid naedlakezta, ae neztidnufnok nugud.* Eskerrak ez den gauzez ere osatzen den bizitza. Ez den zenbat gauza, ez den zenbat jende den munduan! Litezkeen gauzarik ederrenak ez direnak dituk beti.

Ifar aldeko portu zaharra
ekar dezagun kantara
kale bustien sentimentua
edalontzien ikara

Marinelen hitz arrotzak baina
ginebra onaren dirdira
gau biluzia sartzen zitzaigun
begi zabalen nirira

Holako koplak eginen nizkikek, baina zer laburra den lirikarena. Gizarterako leihoa zabaltzen, errealitatea sartzen zaitak bere altzairuzko hatzaparrekin orroaka. Zazpi zaborrontzi kale bazterrean (zazpiak lerroz lerro) taparik gabe, ahoa euliei zabal zabalik tripazain. Begira gorputz hutsoi, zelan asebetetzen diren, eta egin hiritarren behar intimoen historia. Hona antropologia artxiboan baino humanitateari buruzko datu gehiago...

Argia amatatzen bada, zaila duk lehenago hasitako solasa jarraitzea. Isildu edo gaiaz aldatu. Egoera tristea duk baina zeozelan onuragarria, gure berezko bakardade eta babes gabezia egiaztatzen duelako. Eskerrak ilunaldiak ditugula, argi bizitzen ikasteko, bestela...

Euskaldunek ez ditek poesiarik leitzen, etb ikusten omen ditek, eta bidaia turistikoak egiten... Gure lur okupatuari, gure arbaso zakarrei, gure hizkuntza baztertuari erreparatzen badiogu, bazirudik ez dugula ez herri, ez mintzaira ez kantarik, geuk asmatuko duguna baizik. Auskalo norena den errua, agian geurea, eta urrutirago joan gabe, geure buruaren aurka ekin beharko diagu. Kanta diezaiogun sehaska kanta bat gure herriaren sehaska hutsari:

«Ni lekuko izana naiz zuen antzezlekuan, erreparatuak ditut legearen teatroko aktoreok maskaratzeko dituzuen toga beltz eta zilarrezko puinetak, barre egina naiz gorrotoaren ondorioak logika aristotelikoz epaitzeko zuen ahaleginaz, aintzat hartua dut beraz, zuen ofizio sakratua, eta ahaleginak eginen ditut berriro harrapa ez nazazuen».

«Ez diet erasotzen ditudanei gorroto, ez ditut defenditzen ditudanak maite. Ene heriotzaren abisuak ez die haiei deus kenduko ez zorion gehiago emango. Ez ninduen burruka honetara bultzatu, ez gizon publikoak ez populuaren zaratak, atsegin joera bakarti batek ekarri ninduen».

Beti zagok bihotz zatitu bat erdiz trenean doana eta erdiz estazioan geratzen dena, baina, trena infernurantza zoaiek beti. Bai. Zalantza haziak ereiten dizkiagu zalantzondoak biltzeko. Nik pilaturiko hitzok ere, beste esanahi bat hartu ditek ia berehala.

Ziria

• Motxorrosolo •

Kutxa

Nekez erabiliko dute terminologia bera Nafarroa Garai osorako. Entitate berriak kudeatzaile berriak behar omen ditu. Argigarria oso, goi mailako karguak hautatzeko prozeduran, goiko pisuetako mahai azpikoetan jaso direnak. Ohi denez, hautamena, Cordovillaren esku dago.

Asier Andueza

Zinemagilea

«Musika eta dantzarekin eman diot filmari nire kutsua»

El vestido izenburuko bere aurreneko film laburra zuzendu berri du Asier Andueza zinemagile iruindarrak. Nahi duen soinekoa lortzeko edozer gauza egiteko prest dagoen emakumeari buruzko (Elena Irureta da aktorea) pelikula musikala da.



● KRISTINA BERIAIN

soslaia

El vestido film laburra da Asier Anduezak zuzendu duen aurreneko lana. Zinemaren mundua, hala ere, ongi ezagutzen du 23 urteko gazte iruindar honek, duela lauzpabost urte hasi baitzen lanean. Hainbat pelikulatan parte hartu du script moduan, eta telebistan ere hainbat proiektutan egin du lan

Andoaingo Ikus-entzunezko Eskola ikasi zuen Asier Anduezak. Handik, Kubako eskolara joaten saiatu zen, baina lortu ez zuenez, lanean hasi zen. Argazkigintza ikasketak ere hasi zituen. Baina ez du berriro ikasten hasteko aukera baztertzen.

El vestido filmari esker, zuzendari lana zer den jakin du Anduezak. Azpimarratu du esperientzia «oso dibertigarria» izan dela. Filmaketak, hala ere, utzi dio beste oroitzapenik, bukatu bezain pronto gripea harrapatu eta astebete eman baitzuen ohean.

BERE FILMARI AZKEN UKITUAK ematen ari zaio Asier Andueza, jendaurrean aurkeztu baino lehen. Zinemagile gazte iruindarra NAFARKARIA-rekin mintzatu da filmaketari eta bere asmoei buruz.

■ **Nolakoa izan zen filmaketa?**

Nahiko zaila, denbora eta diru gutxi genuelako. Jende asko zegoen proiektuan, dantzariak, aktoreak... eta ia filmaketa guztia kalean egin genuen. Baina guztiek oso ondo egin zuten egin beharreko lana, eta, azkenean, dena ondo atera zela uste dut.

■ **Jende askok parte hartu du proiektuan; zaila izan al zen denen lana koordinatzea?**

Lan asko egin behar izan genuen filmatzen hasi aurretik. Irailean musika prestatzen hasi zen Joseba Lasa, eta hiru hilabete eman zituen, nik nahi nuen musika lortu arte errepikatzeko eskatzen bainion. Gogoratzeko erraza izanen zen musika nahi nuen, erritmoduna, azkarra, eta hori lortzea ez zen erraza. Dantzariak bilatzen ere denbora asko eman genuen, Iruñean oso gutxi baitaude.

■ **Zuzendari lanean aurreneko aldiz aritu zara _El vestido_ filmean.**

Ikasten hasi nintzenetik, nire helburua zuzendaritzan lan egitea izan da. Duela lauzpabost urte sartu nintzen ni zinemaren munduan, eta, geroztik, hainbat filmetan eta telebistan ere lan egin dut. Esperientzia horrek eraman nau nire proiektua osatzera. Gidoia prestatu, proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztu, eta filma egiteko dirulaguntza lortu nuen.

■ **Pelikula filmatzen ari zinenean azpimarratu zenuen aurreneko aldiz zuri egokitu zaizula hartu beharreko erabakiak hartzea. Nolako esperientzia izan da?**

Ez da zaila izan, arraro samarra bai. Niri erantzukizuna gustatzen zait, baina jende guztia niri begira gelditzea, nire erabakiaren zain, nahiko arraroa zen. Nik erabakitzen nuena egiten genuen, ez baikenuen denborarik aukera bat baino gehiago probatzeko.

■ **Zu kontent gelditu zara emaitzarekin?**

Bai, uste dut lan ona egin dugula. Lan profesionala egin dugula uste dut, eta azken produktuak itxura ona duela. Sekuentzia musikalak ziren egiteko zailenak, eta ongi atera direla uste dut, dibertigarriak eta arinak. Gustura nago.

■ **Noiz egonen da ikusteko moduan, eta zer egiteko asmoa duzu?**

Musika jartzen ari gara orain. Dena den, hilabeteko epea dugu kopia bat Nafarroako Gobernuan aurkezteko, beraz, ordurako prest egon behar du. Gero zer? Lehenik saiatuko gara pelikula Iruñean aurkezten, eta filmak duen harreraren arabera eginen ditugu hurrengo urratsak.

■ **Musikala aukeratu duzu zure lehen lanerako; ez da batere ohikoa.**

Ez, uste dut hemen inoiz ez dela horrelakorik egin. Baina musikala oso egokia zen nire istorioari eman nahi nion kutsua emateko. Istorioa nahiko sinplea da, hau da, soineko bat lortzeko edozer gauza egiteko prest dagoen emakume baten istorioa da. Soineko hori emakumearentzat funtsezkoa dela azaltzeko zerbait behar nuen, eta hori musikaren eta dantzaren bidez lortu dut. Ipuin baten kutsua eman diogu.

> *«Azken bi urteotan telebistan film labur gehiago ematen hasi dira; interesa agertu dute, eta hori ona da, oihartzun zabalagoa lortzen dutelako pelikulek»*

■ **Golden Apple Quartet eta Elena Irureta izan dituzu, besteak beste, zuretzat lanean. Nola sartu dira proiektuan eta nolakoa izan da haiekin lan egitea?**

Hasieratik nahi nituen aktoreak izan ditut. Gidoia bidali nien, irakurri, eta baiezkoa eman zidaten. Arazoak izan genituen egunekin, baina, azkenean, haiekin filmatzea lortu genuen. Gogoz etorri zirela uste dut, gainera, eta denentzat dibertigarria izan dela filma egitea.

■ **Oso zaila al da halako proiektu bat martxan jartzeko baliabideak lortzea?**

Bai. Proiektu honek hainbat ekoizleren ezezkoa jaso zuen errodatzen hasi aurretik. Azkenean, Unai Martinez Barranco ekoizleak eta biok erabaki genuen pelikula aurrera eramatea, eta proiektua Nafarroako Gobernuan aurkeztea, diru-laguntza lortzeko.

■ **Merkatua oso murritza da, baina badirudi gauzak apur bat aldatzen hasi direla; zer iritzi duzu zuk?**

Azken bi urteotan telebistan film labur gehiago ematen hasi dira. Interesa agertu dute eta laguntza ematen hasi dira. Guk, adibidez, Euskal Telebistaren laguntza izan dugu. Hori ona dela uste dut; telebistan agertzen badira, oihartzun zabalagoa lortzen dutelako pelikulek, eta, gustuko badituzte, gehiago eskatuko dituzte.

→ Asier Azpilikueta

Nafarkaria
Egunkaria
• ostirala • 2000ko urtarrilaren 21a

ZALDIEROA. komikizopa

Nafar Kronika

Pello Goñi

Apokalipsia

Hitzen garaia heldu zaigu berriz, ia konturatu gabe, azken hauteskundeetako oihartzuna oraindik buruan bueltaka daukagula. Berriro argazkiak, hortzetako pastaren iragarkiko irribarrea, agintzak eta egitasmoak, egunero ideia bat, mintzaldi bakoitzean proposamen bat, dena ederki dosifikatuta, ongi neurtuta, iraina barne, azken hilabete hauetan irudi eta komunikazio enpresek diseinatutako estrategiari jarraikita. Suerte pittin batez, politikako buruzagi handiak etorriko zaizkigu gure fideltasuna eskertu eta aurkariak zeinen gaizto eta baldarrak diren gogorarazteko, horrela segi dezagula esateko, etsaiak baino gehiago eta hobeagoak garelakoz. Karrikak estudioko argazkiez beteko dira, begirada gozoez; gure postontziek aurpegi kutun horiek beteko dituzte. Esaldi prefabrikatuekin esnatu eta haiekin ere ohatzeratuko gara, B serieko pelikuletan bezalaxe. Hauxe da prestatu digutena. Gizagaixoak! Lasai daude orain, arriskua iragan dela uste dutelakoz. Baina kale egin dute. Informatiko eta teknokrata guztiek kale egin dute 2000 efektua noiz hasiko zen kalkulatzerakoan, azken finean datak, mundu honetan gauza aunitz bezalaxe, hitzartzen dira: elkarren artean ados jarrita gaur urtarrilaren 21a dela esaten ahal dugu. Baina bakarrik ados etorriz gero. Bestela, Naturak eta Jainkoek agintzen dute. Eta orain, hitzen garai honetan; orain, jende oro lasai dagoela; orain Jainkoek Apokalipsia hastea erabaki dute. Espainiako Hegoaldean hasi da, zeruetatik datozen izotz harri horiekin. Laster hementxe izanen dugu. Orduan inork ez du irri eginen, ez da begirada gozorik izanen, ez esaldi prefabrikaturik... Ikusiko duzue.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Elizondo:** Gaur, 22:30etan, Petas Zetas taldeak kontzertua eskainiko du, Kasino ostatuan.
- **Atarrabia:** Txutxin Ibañez eta bere mariatxiak Errialde tabernan izanen dira gaur gauerditik aurrera.
- **Burlata:** Igandean, 18:00etan, Petti kantaria Danai jatetxean izanen da.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** *El psicoanálisis ante el pensamiento contemporáneo* izeneko hitzaldia emanen du bihar, 11:30etan, Reino de Navarra hotelean, Jorge Aleman psikoanalistak.62
- **Iruñea:** Asteazkenean, 19:30etan, Concha Zilbeti zeramistak *Autorea eta bere lana* izeneko hitzaldia eskainiko du Maisonnave hotelean.
- **Iruñea:** Pello Urzelai EGUNKARIAko politika sailburuak egungo egoera politikoa aztertuko du Zaldiko Maldikon, asteazkenean, 20:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** Ostegunean, Rafael Albertiren poemak irakurriko dituzte Nafar Ateneoaren egoitzan (Barañain hiribidea, 10), 19:30etatik aurrera.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar, 17:30etan eta 19:30etan, Gaiarre antzokian Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek *Barre lana* eskainiko dute.
- **Iruñea:** Ostegunean, *Euskal Off 2050* lana antzeztuko du Hika antzerki taldeak, 20:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Hilaren 23 arte egonen da Kultur Etxean *Giza eskubideak eskuratzeko bidea* erakusketa; lanegunetan 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Eva Cresporen margolanak ikusgai daude Txantreako Auzotegi kultur etxean, hilaren 28 arte. Lanegunetan 18:00etatik 21:30etara.
- **Lizarra:** Gustavo de Maeztu museoan, Nicanor Piñole margolariaren omenezko *Un intercambio artístico* erakusketa ikusgai, hilaren 30 arte.
- **Iruñea:** Urtarrila bukatu arte, Nafarroa Kirol Elkartean, 19:00etatik 21:00etara, Agustin Lojo eta Fernando Villarrealen *Teknika fotografikoa* erakusketa ikus daiteke.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Iruñezar euskaltegiak antolatzen duen *aerobic* ikastaroan izena emateko deitu 948-210433 telefonora, otsailaren lehena baino lehen.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Hilaren 31 arte aurkezdaitezke Sex Haizegoak antolatzen dituen Narrazio Labur Erotikoen V. Lehiaketarako eta Pintura Erotikoen III. Lehiaketarako lanak.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Ekaina arte, Argilan, lan informaziorako gazte bulegoa, irekirik dago asteartero, 10:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 21:00etara (Navarreria, 15, 1. eskuina).

A. LOPERENA

Erronkariko artzainen omenez

Datozen asteotan, Erronkariko artzainen omenez, eskultura bat paratuko dute Izabako Aita Cipriano Barazeren plazan. Eskultura Antonio Loperena eskultore tuterarrak egina da, brontzezkoa da, eta bi metro luze da. Loperenak bukatua du lana buztinean, baita igeltsuzko negatibo eta positiboa ere, eta lana brontzera pasatzea falta da. Dena dela, Loperenak Tuteran erakutsi nahi du lehenbizi bere eskultura, «Erronkariren eta Erriberaren artean dagoen senidetzea azkartzearren». El Pason dagoen eskultura ere Loperenak berak egina da, Bardeetako artzain bat irudikatzen du, eta ongietorria egiten die Zaraitzu eta Erronkaritik irailean jaisten diren artaldeei. Abelbidea promozionatzeko eta bultzatzeko proiektu baten barnean dago Izaban paratuko duten eskultura. Loperenaren bi eskulturek abelbidearen hasiera eta bukaera markatuko dute.